

## LIDERGOA

*Esperientzia Kooperatiboaren hasieratik bertatik, gure on Jose Maria gogoangarriak beharrezko ikusi zuen Kooperatiban LIDERGOAren gaiari heltzea, lan komunitate aktibo, erantzukizunduna eta kooperatiban integratua lortzeko zuzendaritzaren funtzioak duen garrantzia gogora ekarriz. Zuzendaritza talde horren baitan kokatzen ditu, logikoki, pertsonen koordinazio mota oro egiten dituzten pertsona guztiak, kopurua txikia izanagatik ere.*

*1961eko irailean gai hau lantzeari ekin zitzaion COOPERACIONeko zirkularretan, lehen kooperatiba eratu eta 5 urtera besterik ez, eta hilabetekari horren lehen zenbakiaren publikazioaz zehatz-mehatz urte bat bete zenean (aurrerago T.U. izena hartu zuen: Trabajo y Unión).*

*Sortu berria zen esperientzia haren etorkizunaz eta arrakastaz etengabeko kezka izan zuen: albisteak jasotzen zituen kooperatibako bazkide berri gisa estreinakoz langile eta jabe izaera bikoitz horretan hasten ziren horiekin mantentzen zuen harreman ugariatatik, eta lehenbiziko 4 edo 5 kooperatiba (200 laguneko plantilla) haien martxaren inguruan talde motorrak egiten zituen azterketak ezagutzen zituen. Hori dela eta, beharrezko ikusi zuen zuzendarien eta haien egiteko garrantzitsuaren inguruan hausnartzea.*

*Lehenbiziko urte haietako gogoetatik abiatuz, gai honen inguruan zituen ideien eta gogoeten berri emango dizuegu aldizka.*

***Agintzea oso gauza serioa da, eta, nahi bada otzantasuna eta lankidetzara ondo ikusitako baliotzat jotzea, aginterako promozioa bermeeekin egin behar da. Agintzen duenaren erantzukizunaren zentzuak ez du zalantzarako biderik utzi behar. Ahal dela, agindu behar dutenak aukeratzeko kontuan hartu beharreko ezaugarrietako bat izan behar da. Coop 13-1961/09***

### BESTE GOGOETA BATZUK

*Ondo agintzen dakienari obeditzea errazagoa da. Mendekook baliabideak ditugu autoritate osasungarri bat mantentzeko. Helduleku horietako bat lausenguaren aurkako borrokak izan behar du. Beste baliabide bat da gutako bakoitzak GURE KONTZIENTZIAK ESATEN DIGUNARI KASU HANDIAGOA EGITEA, kanpoko aginduaren zain egon gabe. Edonola ere, gure postuak eskatzen dituen erantzukizunen mailan egongo gara. Coop 13-1961/09*

*Soilik euren buruekin kezkatu diren horiek edo eskuzabaltasun izpiriturik ez dutenek, soilik norberaren probetxua dakarren horrekiko interesa dutenek, ez daukate zerbitzurako gaitasunik, eta beraz, arduretarako ere ez. Coop 13-1961/09*

*Arduraduna gizartearen elementu dinamiko eta funtsezkotzat jota, beharrezkoa da bere burua sustatzea, atzetik datozenak ere sustatu ahal izan daitezen, bakoitzari dagokion eskalan edo mailan. Agintean dagoenak horretarako ezgauza dela sentitzen duen unean, bere betebeharrak morala da bera gainditu dezakeenari pasoa ematea, elementu hertsigarria edo pieza ortopediko oztopatzailea ez izateko. Agintea baldintza horietan baliatzeak indiziplina giroa bultzatzen du. Coop 13-1961/09*

*Kritika eraikitzailea zuzendariak baliatzen jakin behar duten kontraste bat da. Norberaren posizioa aztertzeke ere, hori onartu eta sustatu ere egin behar dute, modu lasaian eta aurreikuspenez. Coop 31-1963/03*

*Bikote ona osatu behar dute: bere agintepeko gizakiak sustatzen tematutako zuzendaritzak eta gestore horiei sinesgarritasun handia ematen dien komunitateak. p470*